

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideak enpresaren oinarri garrantzitsuenak hauek dira: balio-proposamena garatzea, bezeroengana iristea, harremanak izatea eta diru sarrerak sortzea.

Hasteko finantza baliabideen kasuan, irakasleeri ordaindu behar zaienez gastuak edukiko ditugu, baina, ikasleen partetik diru sarrerak lortuko ditugu. Esan dezakegu, diru sarrera eta gastuen arteko desberdintasunarekin mozkina lortuko dugula, bien arteko oreka sortuz.

Dantza eskolako giza baliabideak ezinbestekoak izango dira gure helburuak lortzeko. Irakasleen sormena eta talentua izango dira ikasleei dantza mota ezberdinak irakasteko eta, aldi berean, dantza berriak sortzeko oinarri. Gure irakasleek ezagutza zabala eta esperientzia praktikoa izango dute, eta horren bidez, ikasleei dantza estilo ezberdinak eta teknika aurreratuak irakasteko gaitasuna izango dute.



Horrez gain, irakasleek ikasitakoarekin sortuko dituzten dantza berriak eskolaren etorkizuna bultzatuko dute. Gure irakasleen dedikazioa, pasioa eta sormena izango dira ikasleen talentua aurrera eramateko bidea, eta horrela, eskolaren helburuak betetzen lagunduko dute: dantza bezalako arte diziplina bat modu sortzailean eta berritzailean irakastea.

Gainera, enpresako baliabide fisikoak hainbat izango dira, garrantzitsuenak instalazioak eta bulegoa izango dira. Hauek oso garrantzitsuak izango dira guretzat eta gure bezeroentzat, hauen artean, dutoak, takilak (bakoitzak bere gauza pertsonalak gordetzeko), aldagelak, gimnasio bat... egongo dira. Bulegoa ere oso garrantzitsua izango da, bertan bezeroek, dituzten galderak edo kezak argitu ditzazkete. Sistema informatiko bat ere edukiko dugu, gure enpresaren webgune propioa, bertan gure enpresaren informazioa eta publizitatea egingo dugu, gainera bezeroak gurekin komunikatu ahalko dira, beraien galdera eta kezak guri helarazteko.

Azkenik, baliabide intelektualak ezinbesteko elementu bihurtuko dira, eta horiek guztiak gure



marka sortzeko oinarri izango dira. Marka honek gure erakundearen identitatea argi eta garbi adieraziko du. Gure marka IDS izenekoa izango da, eta horrek 'International Dance School' izena hartuko du. Marka honek dantza unibertsoan gure presentzia eta garrantzia nabarmentzea ahalbidetuko du. IDS izenak konpromisoa adieraziko du, dantza sustatzen, hezkuntza kalitatea bermatzen eta talentu berriak aurkitzeko eta garatzeko aukera eskaintzen dugu.